



Tolosaldeko Gazteriak martxa egin du bailaran

VILLABONATIK ▶ Handik abiatu eta Tolosaraino joan ziren oinez, herriz herri geldialdiak-eta eginez

HELBURUA ▶ Etxebizitza arazoari «okupazioarekin» erantzun behar zaiola esan zuten, besteak beste ▶



Eskualdeko hainbat gazte, atzokoan, martxan oinez. IMANOL GARCIA



JAIONE ASTIBIA

Marrazki lehiaketako egileak, festan

TOLOSA ▶ HITZAK eta Merkatarien Elkartek antolatutako ekimenari atzo eman zioten amaiera Berdura Plazan, haurren jaialdiarekin ▶ 6



UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Kerik gabeko urtea ote?



Izutu da negua. Larritu da zeharo. Hiztegiaren begira jarri da, kea eta lainoa sinonimoak ote diren. Orain arte bezala, mendia estaltzeko baimenik ba ote duen eskatu dio urduri Txindokiri. Keak usaina duela erantzun dio honek.

Gizartea zenbateraino nahastu den ziurtatu du joan-etorri batean: ikusi du gure irakaslea Olentzerori pipa oparitzen, atzetik jarraitu du izeba Maria tabako paketea mostradorean utzi eta metxe-

ra poltsan sartu duenean, harritu da aitona Julianek Kafe-frontoian kafearekin batera txikle paketea eskatu duenean, txunditu da txanpinoi razioa hautsontzian atera digutenean.

-Keak eta keak.

Atsegin baitu baserriko tximinietatik irakiten den kea, gozoa iruditzen baitaio lizar kiskaliaren usaina, sukalde horretan otordu ederrak eta algara luzeak eman direla bai baitaki. Neguak ez du uste ke hori debekatu behar denik. Kerik eza oso kontu hotza da, eta hotza izateko nahikoa da negua bera.

-Ke gozoak?

Maite baitu zartagineko xerra errearen keak konkistatzen duen txokoa. Ez baitio

inork platerean dagoen xerra gorri gordinari helduko. Labean dagoen oilaskoak ere kea bidaliko baitu gonbidapen txarteletan.

-Ke ugari!

Baina gehien miresten duena adostasun kea da, bi pertsona elkartu eta elkarren iritziaik entzun ondoren, handik edo hemendik soka luzatu eta besarkada batekin bukatzea. Inoren asmoak entzuteko gaitasun eza uxatzen du. Bilkuretako kearen zain dago, besarkada txalotzeko eta arnas sakona entzuteko prest. Surik pizten ez bada, nekez agertuko da ke gozorik ordea. Eta epeltasunik aurkitu nahi ez bada, lekutan daude keak.

-Surik bai?

GUTUN@K ▶

Ikasleok ere borronkan

'Lo, lan, jan ta kaka egin'. Hala-xe dio talde ezagun baten abestiak langileen eguneroko bizitza deskribatzerakoan. Egin dezagun aldaketa txiki bat: lo, ikasi, jan, kaka egin ta ikasi. Horra hor ikasle baten bizitza. Rutinaren morroi bihurturik hezkuntza sistema honen menpe. Azterketak, kontrolak... zertarako balio dute?

Sistema kapitalista honek badu ikaslongan ere eragina. Sistema honek zapaldirik gaitu. Zapaldirik nahi gaitu. Zertarako dira azterketak? Gai jakin bati buruz dakizuna frogatzeko? Ez naiz ba ni erantzun horren aldekoa. Azterketa Estatuaren trapa da, tamalez guztiok onartua, ikasleok etxean bertan preso egoteko. Estatua zapalzaile honek nahi duena hori da: horrenbeste buruko min sortzen dion gazteria etxean geratzea ikastearen aitzakian, ez gaitzen antolatuta, ez dezagun sistema hau zirikatu. Automata bihurtu nahi gaituzte, berainean morroi bihurtu nahi gaituzte, bai ez dugu etsiko, borrokatu egingo dugu ez

baitugu ezer galtzeko, asko al-diz irabazteko. Marxek eta Engelsek langileengatik ziotena aplikagarria da kontestu honetarako: «Makinen erabilpenaren ugaritzeak eta lan banaketak berezko izaera kentzen diote langilearen lanari, eta langilearentzat erakarpen osoa galduarazten diote horrekin. Langilea makinaren apendizoi soil bat bihurtzen da, eta operazio errazetak eskatzen zaizkio, monotonagoak eta ikasterrezagoak». Horixe da gertatzen dena. Ikasleak ez du gogoko ikastetxera joatea, ez du ikasi nahi, monotonoa egiten zaio irakasteko modua, ikaslearen helburua ikasketak lehenbailehen amaitzea eta lan munduan sartzea da, maila altueneko ikasketak eliteentzat soilik geratuz. Zapalketa psikologiko honek, baliabideen murrizpenarekin lagundurik, emaitza ezin hobea ematen dio sistema kapitalistari.

Izan ere, baliabideak egon badaude irakasteko modua hobetzeko. Errealitate birtualeko dispositiboek potentzial izugarria dute ez soilik ekoizpen-rako eta diseinurako, baita hezkuntzarako ere. Kontutan hartu behar da ordea, interes pribatu-

tuaren oinarritutako gizarte honetan ikas-baliabideen hobekuntza kapitalisten poltsikoak ikutzen dituen lekuan amaitzen dela. Sistemak esaten du zer, nola eta noiz ikasi, eta argi dago beraz, bere sistema justifikatzeko ideiak ikasleengan errotzen saiatzen dela.

Gauza bat ahaztu zaie, ordea. Ahaztu egin zaie gazte garaia. Borrokarako gogoia dugula. Ez dugula beraiek dioten guztia sinesten. Mundu hobea bat amesten dugula eta sozialismoaren bidetik mundu horren alde borrokatuko dugula. Inolako zapalkuntzarik ez dagoen mundu bat. Gaurko ikasleak gara biharko langile izango gara, herri honen geroa. Ez dugu ustelduriko gizarte zapalzaile hau onartuko.

Ikasleok badugu borrokarako aitzakia, badugu noren aurka borrokatu: gure herria zapaltzen duen hezkuntza sistema arrotzak, emakumeen diskriminazioa bultzatzen duten liburu sexistak (zenbat emakume idazle, iraultzaile... ezagutzen ditugu?), kurrikulum inposatuak, hizkuntza eskubide zapalketak... Badugu bai zertan borrokatu. Aitzakia faltarik ez dugu. Honi guztiari au-

rre egiteko beharrezkoa da ikasleonek nazioz gaindiko batasun bat, ikasleonek arazoak berberak baitira planetako edozein puntutan; guztion indarrak batuta lortuko dugu garaipena, itsasoa ur tantaz osaturik dagoen bezala, iraultza iraultzaileez osaturik dago, guztiok baturik indartsuagoak gara, esaera batek hala dio: denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman ez dezaten.

Urruti egongo da, agian, Euskal Eskola Nazionala, baina urruti dagoen oro hurbildu daiteke. Ziurrenik, nik eta nire belaunaldikoek ez dugu eskola horretan ikasteko aukera izango. Baina borrokarako prest gaude, iraultzarako prest gaude. Hezkuntza sistema hobea baten alde borrokatuko dugu, hizkuntza eskubide guztiak defendatuko dituen eskola publiko eta kalitatezko baten alde, sexu, arraza edota naziotasun diskriminaziorik gabe. Gure ondorengoei zerbait ona utzi beharko diegu ba! Zu ere batu zaitetz borrokarako, salatu ezazu zure ikastetxeko eskubide zapalketa.

URTZI REGUERO

ETA BESTE LAGUN BAT ▶ ZIZURKIL

WWW.TOLOSALDE
KOHITZA.INFO ▶Gauzez liskarrak
ugaritu dira;
zer diozu?

Niri galdera bat bururatzen zait horrelakoetan: nerabe horien gurasoak non daude? Ez al dakite nola ibiltzen diren beren seme-alabak parrandara ateratzen direnean? Besteei min ematea baino egiteko hoherik ez al dute? Lotsagarria da gure herriko gazteekin gertatzen ari dena; hezkuntza eman beharrean ez dakit zer ematen diegun...

LAURA ▶

Noski azkenaldi honetan as-teburuetan liskarrak, jipoiak, mehatxuak... asko ikusten direla, eta egunetik egunera are gehiago. Gezurra dirudi, baina ia larunbatero egonen da zerbait... Denok dakigu zer izan litekeen honen guztiaeren errua: droga. Ia gehientsuenok dakigu non, nor, noiz... dagoen. Beraz, zer? Noiz arte ezer egingabe? Beti gertatzen den bezala, ez? Zerbait ikaragarria gertatzen denean, orduan! Berandu denean, ez?

LARRAITZ ▶

Badakigu, bai, nortzuk diren pertsonaia hauek. Ertzainek ere badakite, baina ez zaie komeni hauek atxilotzea, bestela nork pasatu herria droga? Erraza da ezer egin ez duten gazteak atxilotzea, beti bezala, baina herria gehien izorratzen dutenak ez... horiek kalean behar dira indar polizialen markotrafikoa aurrera eramateko.

HERRIA ▶

Gauza bat esan behar dut argi gera dadin. Duela bi urte, jarrera horiek hasi zirenean; hau da, gaiztakeriak egiten eta bronkak izaten, adin txikikoak ziren, baina gaur egun ez dago adin txikiorik kaleko banda horretan!

KILL ▶

hilberriak eta urteurrenak ▶

Alejandro Reguero Gonzalez

(Vicenta Aleviaren alarguna)

LARUNBATEAN hil zen, 78 urte zituela. Elizakoa eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren
-Golan bago-

Haren seme-alabak: Ascension eta Pablo Fernandez, Pello eta Maria Felisa Goikotxea, Josu eta Mila Otamendi, Alex eta Anttoni Ugarte; bilobak: Pablo, Sonia eta Amaia; Aritz eta Denis; Joana eta Irati, Urtzi eta Irune; anai-arrebak: Fulgencio eta Candida Perez; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela ASTELEHENEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, Elbarrena auzoko Nstra. Sra. Aranzazu parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Pagamunio auzoa, 7-3 ezk.

ZIZURKIL, 2006ko urtarrilaren 15a
oharra ▶ gorpua Tolosako Tanatorioan egingo da astelehenean 11:30ak arte

Alejandro
Reguero Gonzalez

Aitona maitea
beti umoretsu eta alai
eramango zaitugu bihotzean

Pablo, Sonia eta Amaia; Aritz eta Denis;
Joana eta Irati; Urtzi eta Irune

ZIZURKIL, 2006ko urtarrilaren 15a



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

SAGARDO DENBORALDIA ▶

Negurarekin batera sagardoa bere sasoi onenera heldu da eta berarekin sagardotegiek bere denboraldia hasi dute; aurtengoa «kantitatean eskasagoa baina kalitate onekoa» dela adierazi dute sagardogileek; HITZA eskualdeko batzurrekin aritu da solasean gaiaren inguruan IÑIGO TERRADILLOS - NOELIA LATABURU

IÑAKI SARASOLA ▶ SARASOLA SAGARDOTEGIA

«Iaz oso urte ona izan zen; emaitza berdinekin konformatuko ginateteke»

Atzo ireki zuen ofizialki Sarasola sagardotegiak bere sagardo denboraldia. Jai giroa nagusitu zen Asteasuko sagardotegiaren kupelen artean, besteak beste, Mañukortaren, Larrañagaren eta Arrospidearen soinuarekin, bertsoekin edota panderoarekin alaitutako doinuei esker. Hiru hilabete iraungo ditu eta artean eguraldia lagun izanik, «jendea gerturaztea» espero du Iñaki Sarasola jabeak. HITZAREKIN hitz egin du denboraldiaren inguruko nondik norakoak azaltzeko.

Zer moduzkoa izan da aurtengo uzta?

Ona izan da, gutxi samar agian. Udan izandako lehortea dela eta, sagarra bere garaia baino

lehen pasatu da aurtengoan. Geratu direnak, berriz, azukre askokoak izan dira, baina orokorrean kantitatea gutxiago izan bada ere, kalitate onekoa izan dela esan daiteke.

Zenbat kilo sagar bildu dituzte?

Hori zehaztea oso zaila da baina gure sagardoaren %25 hemen bildutako sagarrarekin lortu dugu. Gainontzekoa Galizia eta Asturias (Espainia) aldetik eta Frantziatik ekarritakoa da. Pozik gaude lortutakoarekin, beraz.

Oraintxe hasi berri da sagardotegi denboraldia. Zer eskakutuko zenioke aurtengoari? Garrantzitsuena jendea gurea hurbiltzea litzateke. Ea eguraldiak ere laguntzen duen,

euririk ez bada jendea gehiago animatzen delako. Argi dago sagardotegia ez dela jaretxe soil bat, hiru hilabete irauten du denboraldiak eta tarte horretan xarma berezia eskaintzen saiatzen gara gure bezeroei. Sagardotegietan giro berezia topa daiteke eta edaria ez ezik, janaria ere kalitate onekoa da.

Aurreko urtekoarekin alderik ba al du uzta?

Iaz kantitate handiagoa izan zen, baina kalitatea mantendu egin da. Gu, behintzat, iaz lortutako emaitzak lortzearekin konformatuko ginateteke, denboraldi oso ona izan baitzen.

Zein ezaugarri izan behar ditu sagardoak ona izan dadin?



IMANOL GARCIA

Batzuk koloreari ematen diote garrantzi gehiena, baina askotan honek ez du zehazten edariaren kalitatea, izan ere, ilunagoa izan arren ona izan daiteke. Egokiena lasto kolorekoa izate

da, edalontzian ere haustea eta edaterako garaian zantzua uztea edalontzian bertan. Sagardoa mehea ez izatea ere garrantzitsua da kalitatea aztertzekoan.

MIGEL MARI LASA ▶ ISASTEGI SAGARDOTEGIA

«Aurtengo sagardoa itxura onekoa da, usainez, kolorez eta zaporez»


Aldaba Txikiko Isastegi sagardotegiak atzo ireki zituen bere ateak. Miguel Mari Lasak, bertako jabeak HITZARI azaldu dioenez, «iazko denboraldia oso ona izan zen» eta hura bezain ona izatea espero du aurtengo ere. Sagardo denboraldi berriak dituen xehetasunen inguruan aritu da solasean.

Zer moduzkoa izan da aurtengo uzta?

Lehenengo urtekoarekin alderatuz aurtengo uzta eskasagoa izan dela esan genezake. Hori dela-eta beste leku batzuetatik ekarri beharra izan dugu sagarra. Euskal Herritik ez ezik, Frantziatik, Britainiatik, Asturiasetik (Espainia) eta Galiziatik ere ekarri dugu. Hala ere, bertako sagarra izan edo kanpokoia izan ez da gehiegi nabaritzen sagardoan, sagarra ekartzen dugun leku horietan hemengoaren oso antzekoa izaten baita.

Zenbat kilo sagar bildu dituzte?

Guk zenbat kilo ditugun zaila



IMANOL GARCIA

da zehaztea. Gipuzkoan denora 2 milioi kilo jaso direla azaldu dute.

Oraintxe hasi berri da sagardotegi denboraldia. Zer eskakutuko zenioke aurtengoari?

Aurreko denboraldia oso ona izan zen eta hura bezain ona izatea da guk espero eta nahi duguna. Gure aldetik lanik egokiena egiten saiatuko gara eta ea jendea gustura gera-

tzen den. Inguruko herritar guztiak animatzen ditugu sagardoa dastatzera eta sagardotegi giroan barneratzea. Gainera, aipatzekoa da urtetik urtera ez dela alde handirik izaten diruari dagokionez.

Aurreko urtekoarekin alderik ba al du uzta?

Pasa den urteko sagardoa, uzta bezala, oso ona zen, maila handikoa. Baina aurtengoa ere ez da atzean geratzen. Itxura oneko sagardoa da, bai kolorez, bai eta usainez ere. Lehenengo eta behin, sagardoa, egin berria, dastatuko dugu, eta hori ona dela esaten badugu, luza-

roan ere hala izango den seinale da.

Zein ezaugarri izan behar ditu sagardoak, ona izan dadin?

Lehenengo, begiradari garrantzia ematen badiogu ere, pausu batzuk jarraitu behar dira eskuan dugun sagardoa on den ala ez jabetzeko. Lehendabizi usaitu egingo dugu, eta ondoren koloreari begiratu dugu; sagardo onak kolore horrikakoa izan behar du, baina ez argiegia. Behin pausu horiek guztiak eginda, dastatu egingo dugu; kasu honetan, zaporea, suabea utzi behar du sagardo onak.

hilberria



Miguel Uria Amezti
ASTEAZKENEAN hii zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren
—Goian bago—

Miguel Uria Ameztiren familiakoak guregana hurbildu zaren guztiok zuen laguntasuna azalduz, zuen maitasuna adieraziz, zuen oitotzak eskainiz, gure esker beroenak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez

Agur aitona, agur Miguel gURIA, espeziala zinen, beti maitagarria

Ane eta Amaia bilobak eta sendia

TOLOSA, 2006ko urtarrilaren 15a



I. HITZA MARRAZKI LEHIAKETA ▶

JAIONE ASTIBIA

Bostetan zen hastekoa jaialdi merienda Tolosako Berdura plazan. Ordurako han ziren Tolosako Alde Zaharreko Merkatarien elkarteak kideak guztia prestatzen; eta festako tenorea iritsi ahal, HITZAKo globoz atondutako kristalezko estalpea umez eta euren gurasoz bete zen: aurreko egunetan gure egunkarira iritsiarazitako marrazkiak gogoan, saria nori egokituko irrikaz eta urduri ere bai, pixka bat.

Musika ere jarrita eta festaren animatzaileak iradokitzen zituen oharrekin, jaialdi-meriendari hasiera, horixe, arratsaldeko bikaina eginez eman zioten. Urduritasunak baretzeko sabela gozo edukitzea bezelakorik ez dago eta, ezta hala? Bada, Tolosako Alde Zaharreko Merkatarien elkarteak kideek betegarri orotako otarteko goxoak banatu zituzten, nahi haina freskagarririk, eta ondoren, txokolate bero-beroa, goxo-goxoa, denentzat, haur, guraso eta bertara gerturatu ziren guztientzat.

Eta hala, sariak banatzeko tenorea iritsi zen. Tolosaldeko eta Leitzaldeko 122 haur eta ume parte hartu dute *Nola ikusten duzu zure herria?* marrazki sariketan. Adin guztietako gaztetxoak irudiak jaso ditugu, batzuk koloretakoak, besteak txuri-beltekoak... Bakoitzak bere herriko, edo inguruko, edo ezagutzen duen alderdiren bateko txoko politaren marrazkia egin du. Guztiak benetan bereziak eta oso politak!

Horrela, hantxe bertan, jaialdiari bukaera emateko, 122 parte-hartzaileen artean Tolosako Alde Zaharreko Merkatariek eskainitako hainbat eta hainbat opari zozketatu zituzten. Han bertan suertatu zirenek eskura jaso zuten egokitutako saria: gainerakoei helduko zaie. Nola? Bada, ondoren datorren zerrendan begiratu eta zure izena hor badago, HITZAK Tolosan duen egoitzara joanda jaso lehenbailehen. Zorionak denei eta mila esker!



Arratsaldeko bikaina egin zuten haurrek Berdura Plazan Alde Zaharreko merkatarien eskutik. JAIONE ASTIBIA

Marrazkiekin jostatuz festa eta saltsa

Tolosako Merkatarien Elkarteak eta HITZAK, elkarlanean, gure herrietako txokoan marrazkien sariak banatu dituzte

Horra, beraz, sarituen zerrenda: Oihan Parra (Ikaztegieta), Leire Lampe (Alegia), Miren Alargunoro (Tolosa), Janire Errazkin (Ibarra), Nora Alustiza (Alegia), Leire Sanchez (Tolosa), Eneritz Ugartemendia (Leaburu), Jose Luis Rodriguez (Tolosa), Jon Eskisabel (Alegia), Leire Romero (Ibarra), Uxue Puerta (Tolosa), Iratxe Arregi (Tolosa), Jon Eusebi Hidalgo (Tolosa), Nerea Martinez (Tolosa), Jon Luzuriaga (Ikaztegieta), Maider Aldazabal (Tolosa), Jone Sarasola (Tolosa), Iza Etxaniz (Tolosa), Asier Arozena (Anoeta), Iñigo Agüero (Ibarra), Joseba Iraola (Tolosa), Inhar Esnaola (Berastegi), Iñigo Puerta (Tolosa), Maria Prada (Tolosa), Rakel Mateos (Ibarra), Oier Mitxelena (Tolosa), Jorge Gomez (Tolosa), Sara Moreno (Tolosa), Ibai Esnaola (Berastegi), Amaia Garmendia



Parte-hartzaileei sariak banatu zizkieten antolatzaileak. J. ASTIBIA

(Tolosa), Jokin Tolosa (Amezketeta), Aitor Sagastume (Tolosa), Andrea Riñon (Tolosa), Andoni Elustondo (Tolosa), Pablo Martin (Tolosa), Irene Arin (Tolosa), Rosa Milagro (Altzo), Jon Kortajarena (Tolosa), Ane Gu-

rrutxaga (Tolosa), Nerea Sorondo (Tolosa), Leire Bengoetxea (Tolosa), Leire Padilla (Villabona), Garazi Erbiti (Leitza), Arantxa Urdangarin (Altzo) eta Carlos Alfredo Moreno (Tolosa).

TOLOSA ▶

Atzokoan, azoka lasaia izana da Tolosan

Eskaintza handia baina salmenta txikia, aurreko egunetako diru gastuengatik

PABLO ALBERDI

Lasaia izan zen atzoko azoka eguna Tolosan. Nahiz eta eguraldi ona izan, jende kopurua ez zen oso zabala izan, egia esan, eta hari beretik goizean zehar saltzaileak irabazi zuten ere, ez zen asko izan. Salmentek lehendik egindako gastuen eragozpena izan zuten, produktu eskaintza zabala izan zen arren.

Baso espezie ugari izan ziren salgai, frutarbolak, barazki berriren bat edo beste, aza lonbarda kasu, eta apaingarritarako lore berriak ere bai: *Kalanchoe* bikoitza, kamelia, errododendroa...

Fruta zerrenda ere oparua izan zen, negua izanagatik: kiwia, sagar gorria, Errezil sagarra, Mendiola sagarra, urra, intxaurra...

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Erromero	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Xarbota	4,00	6,00

	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Intxaurra	2,50	4,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	3,00
Porru	1,00	3,00
Arrautzak	1,30	2,10
Txikoria	1,00	1,25≤

	merk.	gares.
Produktu ekologikoak		
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00

iragarki laburrak ▶

Laborategia. Plaza libreak: teknikariak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Ohar garrantzitsua. Urritasun fisikoren bat baldin baduzu, lor ezazu lanpostu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan: 943 31 37 82.
Pecioak. Obrak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak.

Udaletxetarako. 943 31 37 82.
Gidariak. Hurrengo lanpostuak Foru Aldundirako. Kontratu mugagabea. 943 31 37 82.
Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Plaza libreak udaletxetarako. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: eraikin publikoak, ikastetxeak, erietxeak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Informa zaituz 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.
Presazkoa. Haur zaintzaileak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak udaletxetarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Etxebizitza. Altzon etxebizitza bifamiliar berria salgai, 200 m²-koa. 160 m²-ko lorategiarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 652 777 959.
Etxebizitza. Leitzaan 100 m²-ko pisua salgai. Igogailu eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 461 365.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Bere urtebetetze edo ezkontza eguna delako senitarteko edo lagunaren bat zoriondu nahi duzula? HITZA egunkarian argitaratu ematen diren zorion agur guztiak Interneten ikusteko aukera duzu. Sartu webgunera eta ikusiko duzu!

TOLOSA ▶

Udaberri dantza taldearen bilera bihar iluntzean

Udaberri dantzari taldekoek bilerara deitu dute bihar iluntzerako. 20:30ean bilduko dira zehazki Igarondo igerilekuaren albo egoitzan. Dantza taldeko arduradunek ahalik eta dantzari gehien joatea nahi dute batzar horretara, taldeak 50 urte betetzen dituela eta ekitaldiak prestatzen hasi behar dutelako laster. Hain zuzen, ospakizun ekitaldiez ariko dira.

TOLOSA ▶

Eskiatzera joateko irteera antolatu dute

Alpino Uzturre elkarteak Baqueira-Beret eski estaziora joateko autobusa antolatu du otsailaren 4 eta 5eko astebururako. Igande horretan, gainera, iraupen eskiko Marxa Bereten parte hartzeko aukera dago. Informazio gehiago edota izena eman nahi duenak elkartearen egoitzara joan behar du (Gudari kalea, 5) 19:30etik aurrera edo 685 776 504ra deitu.

TOLOSA ▶

ERCko Joan Ridaok hitzaldia emango du bihar

EAK urtero Kataluniako ERC alderdiarekin egiten dituen jardunaldiak Euskal Herrian izango dira aurten, eta horien baitan hitzaldia emango du ERCko bozeramaile Joan Ridaok biharkoan Tolosako Alkartetxean 20:00etatik aurrera. Besteak beste, Estatutaren inguruan mintzatuko da. Bileran herritar guztiei irekia dela jakinarazi dute Eusko Alkartasuneko kideek.

TOLOSA ▶

Ikastaro berriak hasiko dira bihar Tolosaldea LHn

Tolosaldea Goi-Mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakinarazi du bihar, hilak 16, CAD elektrikoa, pneumatika eta CNC elektrohogaduraz ikastaroak hasiko direla. Hobetuz-ek eta Europako Fondo Sozialak diruz laguntzen dituzte ikastaroak, eta, beraz, parte-hartzaileentzat doakoak dira. Izena ikastetxean eman behar da, edota 943 65 11 47 telefono zenbakian.

TOLOSA ▶

Tolosa CFren urteko bilera egingo dute biharkoan

19:30ean da lehen deialdia eta 20:00etan bigarrena; gai ugari jorratuko dituzte

I. ETXEBESTE

Tolosa futbol klubak urteko ohiko batzarrerako deia egin du biharko; 19:30erako egin dute lehen deialdia, eta bigarrena 20:00erako. Kontuen egoera eta 2006ko aurrekontua, igerilekuaren balorazio ekonomikoa eta bideragarritasuna eta klubaren informazio orokorra —komenioak, proiektuak eta 750. urteurrena— dira, besteak beste, hizpide izango dituzten gaiak.

Futbol klubeko arduradunek gonbita egin die bazkide guztiei ohiko batzarrean parte hartzeko. Galderak eta proposamenak ere izango dira.

GAZTERIA ▶

IMANOL GARCIA

Tolosaldeko gazteria independentziara martxan lelopean eskualdean zehar hainbat ekitaldirekin martxa antolatu zuen Tolosaldeko Gazteriak atzo. Villabonan ekin zioten ekimenari, bertsoekin eta suziarekin, Berdura plazan elkartutako hogei bat lagunek. Ondoren, Gaztetxera abiatu ziren eta etxebizitzaren gaur egungo egoerari buruz aritu ziren solasean.

«Etxebizitza, erakunde publikoek herritar guztioi bermatu behar diguten oinarritzko behar bat izatetik, ekimen pribatua aberasteko tresna paregabearen bihurtu da», adierazi zuten irakurritako idatzi batean. Eta zenbait datu eman zituzten: «18 eta 35 urteko gazteen %21 bizi da soilik etxetik kanpo. Euskal Herri osoan 234.283 etxe huts daude. Okupazioa gogor zigortua da, galdetara Barakaldo, Bilbo, Oiartzun eta Zumarragakoei. Gazteon batzabesteko soldata 720 eurotakoa den bitartean, alokairuen batzabestekoa 711 eurotakoa da. Banketxeek mailerik gorenak jasotako 100 eurotatik 170 kobratzen dute». Okupazioa zehaztu zuten helburu bezala: «Gizartean eztabaida eta gatazka sortu behar da eta horretarako beharrezkoa da, etxe hutsak okupatzen direnean, era masibo batean okupatzea eta hauen errentagarritasuna ateratzea». Azkenik, Duina koordinadorak asteazkenean, hilak 18, 19:30ean Gaztetxean egingo duen batzarrerako gonbidapena luzatu zuten.

Gaztetxeari bisita egin ondoren, bildutakoak Anoetara abiatu ziren eta mural bat egin zuten herriko plazan. *Proiektu txikitzaileak* izan zen gaia eta *Ama Lurra ere independentzia* leloa margotu zuten. Ondoren, plaza ondoko bideguru-

Independentzia helburu, gazteen aldarrikapen martxa

Hainbat ekitaldi bururu zituzten atzo Villabonan, Anoetan, Tolosan eta Ibarren, Tolosaldeko Gazteriak antolatuta



Etxebizitza eta gazteriaren inguruan hitz egiten, atzo, martxaren baitan, Villabonako Gaztetxean. I. GARCIA

tzeari jarri zuten murala. Anoetatik abiatu eta hurrengo geltokia Tolosan izan zen. Plaza Berrian egin zuten ekitaldia. Pan-karta bat eskegi zuten Abastoseko eraikinetik, *Gazte asanblada duin baten alde, gazteria martxan* leloarekin. Komunikatu bat ere irakurri zuten eta Tolosan «gazte asanblada bat osatzeko beharra»

adierazi zuten. «Sistemak gazteengan pasibotasuna bultzatzen» duela salatu zuten eta horri aurre egiteko eta «gazteak kontzientzagoak izateko» gazte asanblada sortzeko deia luzatu zuten.

Ibarraruntz jarraitu zuen martxak eta manifestazioa burutu zuten herriko kaleetatik, *Tolosaldeko gazteria errepre-*

sioaren aurka martxan lelopean. Gauerako zain zuten Xepa elkartearen egin beharreko afaria eta Gaztetxeko kontzertua, Potemkin eta Sixty Sister taldeekin. Bestalde, martxaren antolakuntzak «Ertzaintza martxa zelatatzen» aritu zela salatu zuten, bai Villabonan Gaztetxetik ateratzean, bai Tolosara inguratzean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 15a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **9**

hotzena **7**



BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardexbe:



gaur: bai / bihar: bai



Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(Zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko...)
943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Kutxaren laguntzarekin eskulana eta lore sendagaien ikastaroak antolatu nahi ditu Udalak Etxolan. 943 326666 telefonora Miguel Arrietari deitu behar zaio edo udaltxerara (943 683294).

Ibarra. Keike eta Potemkin taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan.

Tolosa. *Dogville* filma emango dute Bonberenean, 19:00etan.

Tolosa. Gure Txokoa elkartean ohiko batzarra 10:30ean lehen deialdian eta 11:00etan bigarrean elkartean bertan.

Tolosa. Peñascal fundazioak soldadura ikastaroa antolatu du lanean ari diren langileentzako etengabeko formazio planen barruan, doan. Informazioa, 943 67 61 61 telefonoan.

Villabona. Bereziki haurrei zuzendutako *Eujenia ardiaren bidaia* antzezlanaren Gar produktzioak taldearen eskutik 17:00etan, Gurea zineman. Sarrera, 4 euro.
Zizurkil. Pilates, funky hip-hop, bertso eskola, automakillaje eta erromeriako dantzak ikasteko aukera ematen du Udalak. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 693066).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.
Leitza. Plaza, M. Elbarren 95. 112.

Bihar

Tolosa. Ollareaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia
(107.5 FM - 101.2 FM)
Gaur

11:00-13:00. *Hitza* egan (errepikapena).

Bihar

11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko* ahotsa (errepikapena).

21:00-22:00. Argizirin Aitaldia. Xorroxin Irratiaren saioa, Arroasa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iriztien erantzukizunik.

Diasporakoak gerturatuz

HITZA ▶ Ameriketako Estatu Batuetako Euskal Federaziokoak Euskal Herrian daude eta HITZA proiektuaren berri jaso dute; «oso interesgarria» iruditu zaie



Mary Gaztambide eta Ion Izurza, NABOko lehendakaria eta sustatzailea, herenegun, Donostian, HITZA egunkariarekin, bileran. AITOR URRIA

AITOR URRIA

Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) ere milaka euskal herritar edo euskal jatorriko bizi dira, eta hango diasporako euskal etxeak (33) eta elkarteak biltzen ditu Ipar Ameriketako Euskal Federazioak (NABO; North American Basque Organizations). Badute Euskal Herriko berri, harremanen bidez, biltzarren bidez, euskal hedabide nazionalen webguneen bidez... Asmoa, HITZAREN bidez ere izatea da.

Hain zuzen, NABOko zuzendaritzaren ordezkariak Euskal Herrian dago egun hauetan, Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta, «dideien trukaketa izateko helburuarekin», eta herenegun, Donostian, HITZA proiektuaren berri jaso zuten Mary Gaztambide lehendakariak eta Ion Izurza sustatzaileak. Aina-ara Lasa Bertako Hedabideetako Harreman arduradunak eta Leire Markuerkiaga *Busturialdeko Hitza*-ren kudeatzaileak azaldu zizkieten proiektuaren xehetasunak (gaur egun zazpi

HITZA daudela, 101 herriz eta hiriburu batez informatzen dutela...). NABOko ordezkariaren ustez, «oso egitasmo interesgarria da HITZA, gertuko informazioa ematen duelako, eta euskaraz. Pauso handia da».

AEBetan euskal diasporakoek Euskal Herriko informazio orokorra jasotzen dute, baina ez horrenbeste euren herrietako, eta Gaztambideren eta Izurzaren iritziz, beraiantzat Hitzen berri izatea («oso garrantzitsua» da, «Hitzetako weben bidez herri informazioa

jasotzeko aukera dugulako») (*Busturialdeko Hitza*-k, oraingo ez du weba, proiektua sortu berria baita). «Gainera, aukera bat da NABOren webean Hitzen webetara loturak jartzea», zioten.

Ipar Ameriketako Euskal Federazioak euskararen irakaskuntzan zentratzeko asmoa du. «Euskarazko komunikazioan gehiago eragin nahi dugu». Euren webean *Astero* izeneko buletina sortuko dute, hango eta hemengo albisteekin, eta euskarari tokia egingo diote.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN POTTOKO
Ander Balerdi (Amezeta). Gaur urteko bat. Ebekeon partetik zorionak, batez ere aitaboi eta amaboi. Muiu asko.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!